

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

3736

EBAZPENA, 2022ko uztailaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia-rena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntzako estrategia-ekintzak egiteko laguntza ekonomikoen 2022ko ekitaldirako deialdia.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2022ko uztailaren 20ko bilera harturiko erabakiaren bidez, onartu du Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntzako estrategia-ekintzak egiteko laguntza ekonomikoen 2022ko ekitaldiko deialdia egitea, eta Lanbideren Estatutuak onartzeko maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren (ekainaren 29ko 156/2021 Dekretuan emandako idazkeran) 10.2 artikuluko o) apartatuan ezarritakoaren arabera, erakunde autonomo honetako zuzendari nagusiari dagokio deialdia argitaratzea.

Azaldutakoa dela-eta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntzako estrategia-ekintzak egiteko laguntza ekonomikoen 2022ko ekitaldirako deialdia argitaratzea. Deialdia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabaki bidez onarturikoa da, 2022ko uztailaren 20ko bilkuran hartu baita erabakia, eta ebazpen honen eranskin gisa bilduta dago.

Bigarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak laguntzen deialdia onartzeko hartutako erabakiak ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Adieraztea deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 21a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ENPRESEK GARATZEN DITUZTEN
PRESTAKUNTZAKO ESTRATEGIA-EKINTZAK EGITEKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN
2022KO EKITALDIRAKO DEIALDIA.

Lana duten langileei lehentasunez zuzendutako enplegurako lanbide-heziketa funtsezkoa da bizialdi osoko prestakuntza ziurtatzeko, langileak eta enpresak ezaguera oinarrian duen gizartera egokitzeko eta langileen gaitasun profesionalari eusteko Europako Enplegurako Estrategiaren esparruan garatzen diren produkzio-prozesuek izan ditzaketan aldaketen aurrean.

Prestakuntza, langileei lan-bizitzan beharko duten kualifikazioa emateaz gain, lehentasunezko balio estrategiko bat da aldaketa teknologiko, ekonomiko eta soziala dakarten prozesuetan, eta, hori dela-eta, funtsezkoa da enpleguaren egonkortasuna eta gizarte-kohesioa lortzeko.

Deialdi honen xede den prestakuntza-programa hori egiteko, Lan eta Enplegu Sailak EAEko enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretua du arau-euskarri, zeinaren 2. artikuluan xedatzen baita lanbide-heziketaren sistemetako bat dela enplegurako lanbide-heziketa, enpresen artean eta langileen artean, langabeak (lehentasunez) nahiz lanean ari direnak izan, lehiakortasun- eta kualifikazio-beharrizanei erantzuteko prestakuntza bultzatzea eta zabaltzea xede duten tresna eta ekintzez osatua. Prestakuntza horrek, halaber, gizartea kohe-sionatzen eta ekonomia garatzen lagunduko du, ezagutzen oinarritutako ekonomiaren esparruan.

Halaber, Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, Lan eta Enplegu Sailari esleitzen dizkio enplegu-politika eta enplegurako lanbide-heziketa, Lanbide Heziketaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloarekin koordinazioan. Azken hori honako hauen arduraduna da: lanbide-heziketa osoaren planifikazio estrategikoa, diseinua eta ildoak prestatzearena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lankidetzarekin, azken horrek dauzkan ardurei dagokienez.

Gainera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua organismo autonomoari (Lan eta Enplegu Sailari atxikita dago) dagokio, besteak beste, enplegu-programen, enplegurako prestakuntza-programen eta autoenplegua eta enpresen sorkuntza sustatzeko programen kudeaketa. Egiteko horren barruan dago dirulaguntza-deialdiak onestea eta izapidetzea, hala ezarrita baitago maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuak onetsitako organismo autonomoaren estatutuen 3.b) artikuluan.

Halaber, EAEn Enplegurako Lanbide Heziketa agintzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren 9. artikuluan xedatzen denez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua da Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa programatzeko, kudeatzeko eta kontrolatzeko eskumena duen organoa.

Aipatutako dekretuaren 21. artikulua enpresek beren langileentzat programatutako prestakuntza arautzen du, enplegurako beste prestakuntza-ekimenen artean, eta, aurreikusten du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak iragarri ahal izango dituela, hobarien sistemaren bidez finantzatutako prestakuntza osatze edo ordezte aldera, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntzako estrategia-ekintzak egiteko laguntzak, ekintza horiek enpresa-proiektuari zuzenean lotutakoak direla ulertuta.

Helburu hori dute erabaki honen bidez onartzen den deialdiaren babespean finantzatzen diren prestakuntza-ekintzek. Honela, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei beren langileen eskumenak eta kualifikazioak hobetzeko prestakuntza-ekintzak programatzeko aukera ematen zaie.

Bestalde, 1995eko irailaren 27an, Etengabeko Prestakuntzari buruzko Lanbidearteko Akordioa eta, horren ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Etengabeko Prestakuntzarako Hiruko Akordioa sinatzearen ondorioz (horren bidez Eusko Jaurlaritzak bere egiten zuen gizarte-eragileek erabakitako eredia, eta alderdiek onetsitako betekizunak zehazten ziren), Hobetuz-Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa sortu zen, honako helburu hauek betetzeko: EAEn lanean ari diren langileen prestakuntza kudeatzea eta zuzentzea, enpresen, langileen eta ikastetxeen artean etengabeko prestakuntzarekiko interesa piztea, eta prestakuntza hori ahalik eta gehien zabaltzeko eta ahalik eta eraginkortasun handiena izateko baldintzak sustatzea.

Enplegurako lanbide-heziketaren arloko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeak eta 4/2015 Errege Lege Dekretuak eta 30/2015 Legeak enplegurako lanbide-heziketaren arloan ekarritako erreforma sakonak Hobetuz fundazioa errealitate berrietara egokitu zuten.

2016an, Hobetuz Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio bihurtu zen. Eraldaketa hori lehen urratsa izan zen Hobetuz Fundazioa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan integratzeko prozesuaren barruan, eta prozesu hori amaitzeko, batetik, uztailaren 30eko 127/2019 Dekretua argitaratu zen, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioko (HOBETUZ) langileak subrogatzeari buruzkoa, eta, bestetik, Hobetuz Fundazioaren Patronatuak 2019ko azaroaren 27ko bileran erabaki bat hartu zuen, Hobetuz Fundazioaren likidazio-prozesua hasteko baimena emanaz. Gertakari horien ondorioz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere gain hartu zituen Hobetuz Fundazioak 2020ko urtarrilaren 1etik orain arte egindako kudeaketa-lanak.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Lan eta Enplegu Sailaren menpeko erakunde autonomoak, 2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategiko bat du, Administrazio Kontseiluak 2022ko martxoaren 22ko bileran hartutako Erabakiaren bidez onartua, prestakuntzako programa bat diseinatu eta kudea dezan, 2. helburu estrategikoan (Ekoizpen-sistemara egokitzen den enplegu erresilientea) eta haren 2.3 gako estrategikoan (Etengabeko ikaskuntza funtsezko erantzun estrategiko gisa, lanbide- eta bizi-mailara egokitzeko gaitasun handia eskatzen duen aldaketa-egoera azkar baten aurrean) oinarrituta. Enpresek garatzen dituzten prestakuntzako estrategia-ekintzak egiteko 2022-2023 aldirako laguntza hauek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2022ko ekitaldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusita daude. Erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluak onartu zuen plan hori, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 8.1 artikuluan xedatutakoa betez. Erabaki hori Lanbide-ren web-orrian argitaratu zen (www.lanbide.euskadi.eus), «Laguntzak eta dirulaguntzak» apartatuan.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak proposatuta, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2022ko uztailaren 20ko bilkuran harturiko erabakiaren arabera, onartu du Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntzako estrategia-ekintzak egiteko laguntza ekonomikoen 2022ko ekitaldirako deialdia, honako hauei jarraikiz:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Deialdi honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek beren langileen gaitasunak eta kualifikazioak hobetzeko programaturiko prestakuntza-ekintzak (prestakuntzako estrategia-ekintzak) garatzeko laguntza ekonomikoen 2022. urterako deialdiaren oinarriak ezartzea.

Enpresatzat jotzen da jarduera ekonomikoren bat egiten duen entitate oro, haren izaera juridikoa eta finantzaketa-modua zeinahi direla ere.

Estrategia-ekintzak dira enpresaren proiektuari zuzenean lotuta egonik premien diagnostiko batean edo antzeko dokumentu batean –aurkezturiko ekintzen eta horiek hartuko dituzten langileen lehentasunaren adierazgarri den batean– jasangarriak direnak.

2.– Deialdi hau finantzatzeko, 3.200.000 euroko baliabide ekonomikoak erabiliko dira gehienez, eta horietatik 1.600.000 euro 2022ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.600.000 euro, aldiz, 2023ko konpromiso-kredituari dagozkio.

Guztira emango diren laguntzen bolumenak ez du gaindituko aipatutako diru-kopurua edo hori igotzetik ateratzen dena, baldin eta indarreko legeriarekin bat eginez aurrekontu-aldaketak onartzen badira, eta, hala bada, testuinguru hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez eman beharko da argitara EHAA.

Deialdirako erabiliko diren baliabide ekonomiko guztietatik, 640.000 euro erabiliko dira, 4.4 artikuluan xedatzen den moduan, SSCS0108 (pertsonei arreta soziosanitarioa etxean ematea) eta SSCS0208 (mendeko pertsonen arreta soziosanitarioa etxean ematea) profesionaltasun-ziurtagiriei dagozkien prestakuntza-ekintza egiaztagarriak aurrez aurreko modalitatean egiteko, baldin eta autonomia sustatzeko eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko zerbitzuak ematen dituzten enpresek gauzatzen badituzte, betiere. Helburu horrekin erabiltzen ez diren kopuruak deialdi honen babespean emango diren gainerako dirulaguntzen finantzaketari gehituko zaizkio.

3.– Deialdi honetan jasotako laguntzak ez dira bateragarriak izango prestakuntza-ekintza berak egiteko laguntzen onuradunek jaso ditzaketen beste dirulaguntza publiko batzuekin.

4.– Dena den, deialdi honetan jasotako dirulaguntzak etengabeko lanbide-prestakuntzako estatuko egungo ereduaren barruan aurreikusiriko hobariekin osagarriak direla bermatuko da.

– Horri begira, estatuko hobari-sisteman agortu beharko dute enpresek ekitaldirako kreditu erabilgarria, eta bestela, agortu gabeko kredituaren kopurua azken dirulaguntzatik deskontatuko da.

– Gainera, enpresa eskatzaileek bermatu beharko dute dirulaguntzaren xede diren ekintzek ez dutela jasotzen hobaririk Estatuko ereduaren.

Bikoiztasunak eta prestakuntza-ekintzen gainfinantzaketa saihesteko, deialdi honetan eskatzen dizkieten puntu guztiak egiaztatu beharko dituzte eskatzaileek.

5.– Lehia-, publikotasun- eta objektibotasun-printzipioak kontuan izanda emango dira laguntza horiek.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Deialdi honetako laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoan dauden lantokietarako sustatzen diren prestakuntza-ekintzei aplikatuko zaizkie.

2.– Deialdi honen zehaztapenen arabera enpresak eta enpresa-taldeak izan daitezke laguntzen onuradun, eta haietako langileek parte har dezakete prestakuntza-ekintzetan.

3.– Honako kolektibo hauek ere parte har dezakete prestakuntza-ekimen diruz lagungarrietan:

1) Lan elkartuko kooperatibetako bazkide diren langileak, Langile Autonomoen Araubide Bere-zian (LAAB) kotizatzen dutenak, elkarte horietako estatutuek hori xedatzen dutenean.

2) Enpresari zuzenean loturiko langileak eta Legearen arabera besteren kontura kontratatu ezin direnak, nahitaez Langile Autonomoen Araubide Bere-zian (administratzaileak, senitartekoak) kotizatu behar dutenak.

3) Gizarte Segurantzaren Nekazaritza Araubide Berezira (GSNAB) edo itsasoko langileen Araubide Berezira bilduriko langileak.

4) Langile autonomoak.

5) Landun ez egonik ere, honako egoera hauetakoren batean daudenak:

– Lanaldi mugatuko langileak (finko aldizkakoak), lanik egiten ez duten aldietan.

– Prestakuntzaldian daudenean langabeziara igarotzen diren langileak.

– Enplegu-etenaldietan enplegu-erregulaziora bilduriko langileak.

Salbuespen gisa, nazioartekotze-prozesuetan sartuta dauden enpresen kasuan, eta betiere behar bezalako justifikazioarekin, laguntzaren enpresa onuradunarekin loturiko enpresei dagozkien langileek parte hartu ahalko dute finantzaturiko prestakuntza-ekintzetan. Horri begira, hirugarren herrialdeetan benetan ezartzeko prozesuak dira nazioartekotze-prozesuak.

4.– Finantzaketa jaso ahalko dute, 2022. urteko deialdi honetan, 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitarte garatzen diren prestakuntza-ekintzak. Nolanahi ere, gutxienez prestakuntza-ekintza bat 2022o ekitaldian hasi beharko da.

5.– Ez da finantzatuko deialdi honen 9.II artikuluan ezarritako irizpideen arabera gutxienez 30 puntuko balorazioa merezi duela egiaztatzen ez duen aurkezturiko ekimenik.

3. artikulua.– Prestakuntza-ekintzak.

1.– Deialdi honi dagokionez, irakasteko eta ikasteko prozesua da prestakuntza-ekintza, enpresaren prestakuntza-proiektuaren barruan dagoena (Prestakuntza Plana) eta helburu, eduki eta iraupen sistematizatuak dituen, parte-hartzaile guztientzat berberak.

Ez dira finantzatuko prestakuntza-prozesu bat (irakaskuntza-ikaskuntza) garatzea funtsezko osagaitzat ez duten ekintzak, hain zuzen ere, enpresaren ekoizpen-prozesuarekin zuzenean loturiko gaitasun eta kualifikazioak hobetzea xede duen prestakuntza-prozesu bat.

2.– Orokorrean, prestakuntza-ekintzek, hala banakakoek nola taldekakoek, gutxienez 6 ordu eta gehienez 270 iraungo dute parte-hartzaile bakoitzeko. Muga horiek salbuetsi ahal izango dira, baldin eta horren beharra egiaztatzen bada, betiere. Prestakuntzako jarduerak, modalitatea zeinahi dela ere, egunean gehienez 8 ordu iraungo dute.

3.– Modalitate hauetako batean eman behar dira prestakuntza-ekintzak: aurrez aurrekoa, teleprestakuntza edo mistoa.

A) Aurrez aurreko prestakuntzat jotzen da ikasgela batean irakasleek ikasle talde bati eza-guera berak eta aldi berean transmititzen dizkietenean, edozein motatako baliabide didaktikoak erabilia.

B) Teleprestakuntzat jotzen da parte-hartzaileak ikaskuntzaren erritmoak bere denborara egokitzen dituen; horretarako, prestakuntza-prozesua egingo den tokiaz gain, tutore/irakasleak izango ditu, zalantzak argitzeko eta aurrerapausoak egiaztatzeko. Modu horretan, erabilitako materialen edukiak osatu edo sendotuko ditu.

Teleprestakuntzako modalitatetat jotzen da prestakuntza-ekintzak eskatzen duen aurrez aurreko parte iraupen osoaren % 20 edo gutxiago denean.

Inola ere ez dira finantzatuko modalitate honetan eman beharreko Profesionaltasun Ziurtagirien Estatuko Katalogoko prestakuntza-ekintzak.

Teleprestakuntza-modalitatean irakasteko baldintzak:

3.3.B.1.– Edukiei dagokienez:

a) Teleprestakuntzako eta prestakuntza mistoko modalitatean prestakuntza-ekintza bat egiteak irakaskuntza-ikaskuntza prozesu bat dagoela bermatu behar du, aurrez aurreko modalitateko ekintzek bezala. Teleprestakuntzak parte-hartzaileen, tutore-prestatzaileen eta beste toki batean kokatutako baliabideen arteko elkarreragina eskatzen du.

b) Ez da teleprestakuntza pdf formatuko edo beste formaturen bateko edukiak deskargatzea.

c) Parte-hartzailea edukietatik/ikasgaietatik pasatzen denean erregistratuta geratu behar da.

d) Parte-hartzaileek egingo duten prestakuntza-ekintzaren iraupena erakunde prestatzaileak adieraziko du, helburua lortzeko proposena izango delakoan.

e) Iraupenaren % 75etik beherako konexioak dituzten parte-hartzaileak ez dira parte-hartzaile bukatutzat hartuko.

f) Behar bezala arrazoituko da ekintzarako proposatutako teleprestakuntzako ordu kopurua.

3.3.B.2.– Tutoretza-jarduerei dagokienez:

a) Teleprestakuntzarako, ikaskuntza sistematizatuko prozesu bat dakarten euskarri didaktikoak erabili behar dira, eta, nahitaez, tutorearen laguntzarekin osatuko da ikaskuntza hori.

b) Ez du tutore berak gauzatu behar espezialitate desberdinetako prestakuntza-ekintzen tutoretza. Egoera hori gertatzen bada, haien gaitasunak eta eskura duten laguntza teknikoa zehaztuko dira (adituak).

c) Tutore-prestatzaileak prestakuntza-prozesuan zehar egindako jarduera guztien erregistroa eramango du, parte-hartzaileek egindako kontsulten eta zalantzen argitzea bere funtzioko jarduera espezifikoetatik bereiziz. Tutore-prestatzailearen esku-hartzeak bat etorri behar du tutoreen jardunaren plangintzarekin eta prestakuntza-ekintzaren programazioarekin.

3.3.B.3.– Jarraipen- eta ebaluazio-kontrolari dagokienez:

a) Ebaluazio-probak egin ahal izateko, parte-hartzaileak proba horiek sortzen dituzten edukietan sartu behar du aldez aurretik, jarraipenaren eta ebaluazioaren plangintzan ezarritakoa kontuan hartuta.

b) Tutore-prestatzaileak bermatu behar du proba horiek prestakuntza-prozesua garatzeko sekuentzia egokiaren arabera egiten direla.

c) Parte-hartzaile bukatutzat hartzeko, konexio-denboraz gain, prestakuntza-ekintzarako ezarritako aldizkako jarraipen- eta ebaluazio-kontrolen % 75 ere egin behar izan ditu gutxienez.

3.3.B.4.– Plataformak sortutako erregistroei dagokienez:

a) Informazioa hobeto tratatzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eskatuko du teleprestakuntza-plataformak sortutako eta erregistratutako datuak euskarri informatikoan eman diezaizkieten (kalkulu-orria edo antzekoa): parte-hartzaileen jarduera-datuak (lehen eta azken sarbidearen datak, konexio-orduen kopurua, egun desberdinen kopurua), ebaluazio-proben datu osoak (burutze-data, erabilitako denbora...) eta egindako tutoretzei eta erantzundako kontsultei buruzko datu osoak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren web-orrian erantsitako ereduaren arabera.

b) Teleprestakuntza-plataformak ikasleak eta haiek egiten dituzten jarduera guztiak erregistratu behar ditu. Halaber, txostenak egitea erraztuko du, parte-hartzaileek ikastaro bakoitzeko elementu eta jarduera bakoitzetik egin duten pasaera eta teleprestakuntza-plataforman egin dituzten kliken arteko denbora biltzeko.

Deialdi honi begira, teleprestakuntzat hartuko da Baliabide Etxeetan emandako prestakuntza. Baliabideetako Ikastetxetzat jotzen da banakako ekipamendu didaktikoa duen instalazioa; parte-hartzaileak hara joaten dira, hainbat euskarriren bidez prestakuntza eskuratzeko eta, han, beren zalantzak argitzeko tutoretza-motaren bat edukiko dute.

C) Modalitate mistotzat jotzen da prestakuntza-ekintza bera emateko aurrez aurreko modalitatea eta teleprestakuntza konbinatzen duenaz dihardugu.

Prestakuntza mistotzat hartzeko, modalitate bakoitzeko edukiek argi eta garbi bereizita eta zehaztuta egon behar dute, eta prestakuntza-ekintza finantzatzeko batu behar dira aurrez aurreko orduetarako aplikatutako moduluak eta teleprestakuntzako orduetarako aplikatutakoak (tutoretzak zeinahi modalitatetakoak direla ere).

Modalitate bakoitzaren berezko baldintzak ere bete beharko dira, dagokion zatian.

4.– Prestakuntza-ekintza bakoitzaren parte-hartzaile kopurua zehazteko, eraginkortasun-irizpideak aplikatuko dira, enpresen finantza-baliabideen optimizazioa eta premia espezifikoen estaldura bateragarri egiteko.

5.– Profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntzaren kasuan, Profesionaltasun-ziurtagiriak arautzeko urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuaren 20. artikuluan aurreikusiriko eskakizunak bete behar dituzte parte-hartzaileek. Era berean, ikastetxeak hautaketa-proba bat egingo du beharrezkoa den prestakuntza-ekintzetan. Horrela, ekintzaren probetxua ziurtatuko da, eta kualifikaziora bideraturiko ekintzen helburuak lortzeko ezinbestekoak diren alde zuzeneko ezaugarren benetako maila finkatuko da, kasuan-kasuan, lanbide-kualifikazioko 2. eta 3. mailetako profesionaltasun-ziurtagirien prestakuntza-moduluen prestakuntzara sartzeko beharrezkoak diren funtsezko gaitasunak barne.

6.– Langile batek gehienez 270 prestakuntza-ordu jaso ditzake, salbu eta ekintza bakarrean parte hartzen bada eta ekintza horren muga salbuespentzat hartu bada, artikuluko honen 2. apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

7.– Enpresek beraiek antolatu ahal izango dute beren langileen prestakuntza, eta beraien baliabideak erabili prestakuntza emateko, edo, bestela, baliabide horiek kontratatu ahal izango dituzte % 100ean.

Enpresa-taldeek kasuan, bakoitzarentzat banaka antolatu ahal izango da prestakuntza, edo haietako batzuk edo guztiak elkartuta. Elkartuz gero, taldeko zeinahi enpresak bere kabuz antolatu ahal izango du bere taldeko langileen prestakuntza, eta, prestakuntza emateko, bere baliabideak erabili ahal izango ditu edo, bestela, baliabide horien % 100 kontratatu.

Halaber, prestakuntza kanpoko entitate baten esku utzi ahal izango dute enpresek, irailaren 9ko 30/2015 Legearen 12. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Kasu horretan, egiaztatutako prestakuntza-entitate batek emango du prestakuntza, eta/edo aipatutako legearen 15. artikuluan aipatzen den administrazio publiko eskudunak gaitutako prestakuntza-entitateen erregistroan inskribatutako batek. Lanbide-jarduera jakin batzuetan jarduteko gaitzen duen prestakuntza emateko beste administrazio batzuek homologatutako entitateak inskribatutzat edo egiaztatutzat emango dira. Prestakuntza antolatzeko jarduera eta emateko jarduera ezin izango dira azpikontratatu. Ez da ulertuko prestakuntzaren antolaketa kanpoko entitate baten esku utzi dela haren eginkizuna dirulaguntza ondo aplikatzeko beharrezkoak diren administrazio-izapideak egitea baino ez bada.

Enpresak prestakuntza-ekintzak egiteko kanpoko agenteak kontratatzen dituenean, gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko ditu, hornitzailearen aukeraketa eraginkortasun- eta ekonomia-iriz-pideen arabera izan dela bermatzeko, kontratuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratu buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitako kontratu txikien zenbatekoa gainditzen duenean, salbu eta ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan zerbitzua ematen duen behar adina erakunde ez badago. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

Nolanahi ere, 7. apartatu honetan aurreikusi ez den guztian zuzenean aplikatuko da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. eta 31.3 artikuluetan xedatutakoa.

8.– Prestakuntza-ekintzek barne-prestakuntza biltzen dutenean, osorik edo zati batean, ikasketza-prozesu sistematizatua izateko moduan diseinatu eta egituratu beharko da alde aurretik prestakuntza hori.

9.– Kualifikazio Sistema Nazionalaren Katalogo Modularrarekin erlazionatutako prestakuntza-ekintzak, dirulaguntza-eskabidea aurkezteko unean Euskal Autonomia Erkidegoan Prestakuntza Zentro edo Erakundearen Estatuko Erregistroan egiaztatutako prestakuntza-zentro publiko edo pribatuak eman beharko dituzte, edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatutakoak, Profesionaltasun Ziurtagiriak lortzeko prestakuntza emateko.

Prestakuntza-ekintza horiek, aurrez aurreko modalitatekoak direnak, zentroetako instalazioetan gauzatuko dira.

4. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Deialdi honetako laguntzak 2. artikuluan aipatutako enpresek eskatu ahalko dituzte, betiere 35 langileko edo langile gehiagoko plantilla bat badute.

Salbuespen gisa plantilla horretara iristen ez diren enpresek aurkezturiko planak diruz lagundu ahalko dira. Kasu horietan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak prestakuntza-plana burutzeko duen gaitasuna aztertuko du, eta arrazoiak azalduta ebatziko.

2.– Plantillan 50 langile edo gehiago dituzten enpresa-taldeek ere laguntzak eskatu ahalko dituzte. Enpresa-taldetzat hartuko dira sozietate guztietan haien artean lotura hauetako bat dutenak gutxienez:

a) Enpresa batek beste enpresa baten akziodunen edo bazkideen boto-eskubideen gehiengoa du.

b) Enpresa batek beste sozietate baten administrazio-, zuzendaritza-, edo kontrol-organoko kideen gehiengoa izendatu edo errebokatze eskubidea du.

c) Enpresa batek beste batean eragin dominatzailea izateko eskubidea du, harekin sinatutako kontratu baten edo bigarren enpresaren estatutu-klausula baten ondorioz.

d) Enpresa bat bestearen akzioduna edo bazkidea da, eta, berak bakarrik, kontrolatzen ditu haren akzionisten boto-eskubideen gehiengoa, bigarrenaren beste akziodun edo bazkide batzuekin izandako akordioaren ondorioz.

Kasu horretan, taldea osatzen duten enpresetako edozein izango da eskabidearen titularra, baina prestakuntza-planean parte hartzen duten enpresa guztiak izango dira onuradun.

3.– Dena den, enpresa berak ezin izango du laguntza-eskabide bat baino gehiago aurkeztu deialdi honen barruan, 4.4 artikuluan aipatutakoetarako izan ezik. Eskabide bat baino gehiago aurkezten bada, lehenengo aurkezten dena bakarrik hartuko da kontuan.

4.– Deialdi honetan, 640.000 euro erabiliko dira SSCS0108 (pertsonei arreta soziosanitarioa etxean ematea) eta SSCS0208 (mendeko pertsonen arreta soziosanitarioa gizarte-erakundeetan ematea) profesionaltasun-ziurtagiriei dagozkien prestakuntza-ekintza egiaztagarriak egiteko, baldin eta autonomia sustatzeko eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko zerbitzuak ematen dituzten enpresek gauzatzen badituzte, betiere.

Prestakuntza-ekimen egiaztagarrietan parte hartu ahal izango dute 2. artikuluan aipatzen diren eta gaitasun-unitateren bat egiaztatzeke duten pertsonak.

Era horretako dirulaguntza bat eskatzea bateragarria izango da deialdi honetan jasotzen diren ohiko dirulaguntzetako bat eskatzearekin.

5.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen erakunde onuradunek baldintza orokor hauek bete beharko dituzte:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan behar dituzte.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla, dirulaguntza eman eta ordainketa bakoitza egin baino lehen. Hala ere, eskatzaileak berariaz aurka egin diezaioke egiaztatze horri, eta, halakorik egiten baldin badu, baldintza hori betetzen duela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

b) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea.

c) Zigor-zehapena edo administrazio-zehapena ezarrita edukitzea, dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera kentzen diona, hauek barne:

– Sexu-bazterkeriagatik ezarritako zehapena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera.

– Abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onetsiriko Lan-arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko Legearen testu bateginak 46.1.b) eta 46.bis.1.b) artikuluetan xedatutako zehapen osagarri batek hala ezarri izana, ebazpen irmo bidez.

d) Legez ezarritako kausaren bat ez izatea, laguntzak edo dirulaguntzak jasotzea eragozten diona, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusitakoak barne:

– Ez edukitzea berdintasun-planik indarrean, nahiz eta enpresa Estatuaren araudiaren arabera horretara behartuta egon.

– 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan, ez edukitzea ezarrita sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitu eta eragozteko neurririk, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuak ezarrita dituen legeen arabera.

e) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ez badu egiaztatzen 5. atalean xedatutako eskakizunen bat, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez frogatu beharko da. Adierazpen hori eskabide-orrian jasota dago.

5. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Deialdi honen esparruko dirulaguntza-eskabideak elektronikoki beteko dira, eredu normalizatuetan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enpresentzako prestakuntzako informatika-aplikazioaren bidez. Aplikaziora sarbiderik ez duten enpresek Lanbideren web-orriaren bidez eskatu ahal izango dute: www.lanbide.euskadi.eus

Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa (izapidetze elektronikorako jarraibideak ematen dituen) helbide honetan egongo da eskuragai: <https://www.euskadi.eus/servicios/0136806>.

Eskabideak elektronikoki izapidetu ahal izango dira ordezkari baten bidez. Horretarako, ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ahalordetzeen erregistro elektronikoa inskribatu ahal izango da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/representantes>.

2.– Eskabideak, behar bezala beteta, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren helbide hauetako edozeinetan aurkeztuko dira:

- Arabako Lurralde Bulegoa, Antilletako pasabidea 14, behea, 01012 Vitoria-Gasteiz.
- Bilboko Zerbitzu Zentralak, Prestakuntza Zerbitzua, Xenpelar kalea 13, 48003 Bilbao.
- Gipuzkoako Lurralde Bulegoa, Zuatzu 5-2.B, Donostia Eraikina, 20018 Donostia.

Horrez gain, administrazio-prozedura erkidea arautzen duen araudian aurrez ikusitako moduetan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Paperean aurkeztutako datuen eta informatika-aplikazioaren bidez aurkeztutako datuen artean desadostasunik badago, paperean aurkeztutako datuak hartuko dira baliagarritzat.

Eskabideak aurkezteko, aurretiko hitzordua eskatu beharko da.

3.– Eskabideak aurkezteko epealdia hilabetekoa izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

6. artikulua.– Eskabideak egiteko baldintzak.

Honako dokumentu hauek jaso beharko dira dirulaguntza-eskabidean:

1.– Eskatzailearen izen soziala, IFK, Gizarte Segurantzaren inskripzio-zenbakia, Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN), sektoreko Hitzarmen Kolektiboa eta batez besteko plantilla deialdi hau argitaratzen den egunaren aurre-aurreko hamabi hilabeteetan. Dokumentu horiek behar bezala sinatuta eta zigilatuta aurkeztu behar dira.

2.– Enpresa-taldeko plan batean parte hartzen duten enpresa guztiek parte hartzeko konpromisoa adierazi behar dute (2A eranskina, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren web-orrian eskuragarri izango dena).

3.– Aurkeztutako proiektuaren ardura hartzeko enpresak izendatu duen pertsona.

4.– Jarraian azaltzen diren dokumentuak ere aurkeztuko dira, baldin eta aurreko deialdietan aurkeztu ez badira, edo aldatu egin badira aldeztu aurretik aurkeztutakoekiko.

a) Planaren enpresa eskatzailearen zerga-identifikaziorako txartelaren fotokopia.

b) Erakunde eskatzailea ordezkatzeko legezko ordezkariaren gaitasuna egiaztatzen duen jatorrizko dokumentazioa, kopia konpultsatua edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak konpultsatzeko kopia.

5.– Halakorik izanez gero, finantza litekeen prestakuntza-planean aurkezturiko ekintzak biltzen dituen prestakuntza-premiak detektatzeko azterlana edo azterketa.

6.– Garatu beharreko prestakuntza-ekintzak deskribatzea, lehentasunak ezarriz, hau da, ekintzak egikaritzeari dagokionez lehentasunen ordena ipiniz, ekintza bakoitzaren izena, iraupena eta parte-hartzaile kopurua adierazita, deialdi honi erantsitako inprimaki normalizatueta zehaztutako banantzea barne. Dena den, hauek jaso beharko dira:

a) Talde hartzaileak kategoria edo talde profesionalen, lan-egoeraren eta Gizarte Segurantzarako afiliazio-araubidearen arabera.

b) Prestakuntza-ekintzen aurreikusitako kostua.

c) Prestakuntza-ekintzak egikaritzeko aurreikusitako egutegia eta lanorduen kopurua.

d) Prestakuntza-ekintzak emateko aurreikusitako prestakuntza-erakundeak, tokia, instalazioak eta baliabideak.

e) Parte-hartzaileak hautatzeko irizpideak.

f) Harremanetarako pertsona eta programaturiko prestakuntza-ekintzen jarraipena egiteko modua, eta jarraian prestakuntza-programak ebaluatzeko baliagarri izango diren irizpide eta metodologiak.

7.– 2020ko ekitaldian enpresak edo enpresek ordainduriko lanbide-prestakuntzako kuotaren urteko zenbatekoaren ardurapeko aitortpena, EAEn dauden lantokiei dagokienez.

8.– Erakunde eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko ez duela dirulaguntzen itzulketengatiko zorrik EAEko Administrazioa eta haren erakunde autonomoekiko burutzapen-aldian.

9.– Erakundeak zigor- eta administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrak jaso ez izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik jaso ez izana egiaztatzen duen ardurapeko aitortpena, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

10.– Beharrezkoa bada, prestakuntzan legearen edo hitzarmen kolektiboaren arabera dagokion inbertsioa egin izana egiaztatzen duen ziurtagiria, baita justifikazio-dokumentuak ere. Dokumentu horiek behar bezala sinatuta eta zigilatuta aurkeztu behar dira.

11.– Lantokien zerrenda, bakoitzari buruz zer ekintzatan parte hartzeko asmoa duten, zer herri-tan kokatuko den, langileen eta benetako parte-hartzaileen guztizko kopurua eta ordezkaritza sindikalik baduten edo ez zehaztuta.

12.– Konkurtso-deklaraziorik eskatu ez izana, edozein prozeduratan kaudimengabe ez jotzea, konkurtsoan deklaraturik ez egotea (eraginkortasuna hitzarmen bidez bereganatu badu salbu), epailearen esku-hartzearen menpe ez egotea edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta ez egotea, konkurtsoa sailkatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldi hori oraindik amaitu gabe egonik.

13.– Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak estatuko ereduaren aurreikusitakoekiko osagarriak direnez eta dirulaguntzen/hobarien bikoiztasuna eta laguntzako prestakuntza-ekintzen gainfinantzaketa saihestearren, eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, non adieraziko baitu ezein kasutan ere ez dituela ekintza edo parte-hartzaile berak aurkeztu edo aurkeztuko estatuko sisteman bilduriko hobarien sistema eta jarduera bererako; horrez gain, adierazpen horretan beste administrazio publiko edo erakunde publiko zein pribatu batzuek emandako beste diru-sarrera osagarrien berri eman beharko du, eta horien zenbatekoa adierazi. Ondoren gertatzen den edozein aldaketa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio.

14.– Langileen legezko ordezkartzarako informaziorako eta kontsultarako agiria (3A eranskina, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren web-orrian eskuragarri izango dena), behar bezala zigitatua eta sinatua.

15.– Nazioartekotze-prozesuetan sartuta dauden enpresen loturaren dokumentu bidezko egiaztapena.

16.– Uneko ekitaldian zehar eta aurreko bietan jasotako «minimis» laguntzei buruzko aitortpena, enpresa eskatzaileak egina, bat etorri deialdi honen 20. artikuluan xedatutakoarekin.

17.– Kanpoko zerbitzuen kontratazioaren kasuan, kontratazio-proposamena, hala badagokio, hiru eskaintza eskatu direla eta aukeraketa egin dela justifikatuz.

Dokumentazio hori geroago aurkeztu ahal izango da, baina prestakuntza-ekintza hasi aurretik, betiere.

7. artikulua.– Langileei eman beharreko informazioari eta egin beharreko kontsultari buruzko eskakizunak.

1.– Eskabidea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari aurkeztu aurretik, eskatzaileak informazioa emango dio Langileen Legezko Ordezkaritzari, egikaritzeko dirulaguntza lortu nahi den prestakuntza-ekintzei buruz. Horretarako, aurreko artikuluko 5., 6. eta 7. apartatuetako agirien kopia osoa emango du, eta eskabidearen 3A eranskina betetzeko eskatuko du (informatika-aplikazioan eskuragai).

2.– Langileen Legezko Ordezkaritzak 15 eguneko epea izango du txostena egiteko, dokumentuak jasotzen diren egunetik aurrera. Txosten hori (3C eranskina, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako informatika-aplikazioan izango dena eskuragai) enpresari eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari helarazi ahalko die Langileen Legezko Ordezkaritzak.

3.– Horretarako, Planean parte hartzen duten lantoki guzti-guztiei dagokiena izango da Langileen Legezko Ordezkaritza. Enpresa-batzordea/ek edo langileen ordezkariak eman behar dituzte 3A eranskinak, dauden guztien % 51 gutxienez.

Lantoki batean edo guztietan ordezkaritza sindikalik ez dagoela adieraztea ziurtagiritzat joko da xede guztietarako.

4.– Prestakuntza-ekintzak hasi aurretik, Enpresako Langileen Ordezkaritzari igorri beharko zaio prestakuntza-ekintza horietako parte-hartzaileen zerrenda.

Hiru hilean behin, prestakuntza-planaren egikaritzeari buruzko informazioa emango diete enpresen langileen ordezkariak.

8. artikulua.– Laguntzak zehaztea.

1.– Ondoriozko gehieneko guztizko laguntzak ezin izango du Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen lanbide-heziketako kuotaren urteko zenbatekoa bider 1,5 gainditu 250 langile baino gehiagoko enpresentzat, eta bider 5, 250 langile arteko enpresentzat, enpresa kooperatibek izan ezik, horien langile bazkideek Langile Autonomoen Araubide Berezian kotizatzen badute, eta enpresak dauzkan langileen kopurua 5 langile baino gehiagoko enpresa sortu berrietarako oro har ezarritako langile bakoitzeko batez besteko hobariarekin (65 euro) biderkatzearen ondorio izango da gehieneko guztizko laguntza kalkulatzeko kontuan hartuko den diru-kopurua.

Laguntza kalkulatzeari begira, Euskal Autonomia Erkidegoko plantilla titularra hartuko da kontuan.

2.– Eskatzaile bakoitzari ematen zaion dirulaguntza izango da gehieneko laguntza, eta honela zehaztuko da:

a) Ordu kopurua bider parte-hartzaile kopurua eta dagokion moduluaren zenbatekoa.

b) Ondoren, planaren balorazio teknikoa egingo da, zeinetan zehaztuko baita gehieneko laguntza finantzarriaren ehunekoa, tarte hauen arabera:

– 30 puntutik 69 puntura: % 60.

– 70 puntutik 79 puntura: % 70.

– 80 puntutik 89 puntura: % 80.

– 90 puntutik 100 puntura: % 90.

c) Baldin eta deialdi hau finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak ez badira nahikoak eman beharreko dirulaguntza guztiak estaltzeko, hainbanaketa bidez banatuko dira, eta, horretarako, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoen zenbatekoak funts-mugarik gabe emandako dirulaguntzen zenbatekoaren gainean duen ehunekoa aplikatuko da.

9. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

Irizpide hauei jarraikiz egingo da planen balorazio teknikoa.

I.– Lehentasun-irizpide orokorrak: 35 puntu, gehienez.

1.– Honako ezaugarri hauetako bat duten prestakuntza-ekintzek izango dute lehentasuna:

a) Prestakuntza-ekintzen jatorriari eta izaerari dagokienez: 10 puntu, gehienez:

– Izaera estrategikoa duten ekintzak, beharren azterketaren batean oinarrituta.

– Lanaldia murrizteko, birmoldaketako edo kontratuak aldi baterako eteteko prozesuen ondoriozko ekintzak.

– Lan-munduan euskararen erabilera normalizatzeko helburua duten ekintzak.

– Kualifikazioen Sistema Nazionalaren Katalogo Modularrari loturiko prestakuntza-ekintzak.

– Metodologiarengatik, edukiarengatik edo beste edozein arrazoiarengatik Enplegurako Prestakuntzarako berritzaileak diren ekimenak.

b) Prestakuntzaren hartzaileei dagokienez: 35 puntu, gehienez:

– Enpresa txiki eta ertainetako langileen lehiakortasuna eta enplegarritasuna hobetzeko helburua izatea. Ildo horretan, lehentasuna izango dute EAeko enpresa txikiek eta ertainek aurkezturiko prestakuntza-planek, arreta berezia emanez enpresa txikiek aurkezturiko prestakuntza-planari.

EAEko plantilla	Puntuazioa
35–50	35
51–57	31
58–72	26
73–88	22
89–113	18
114–143	12
144–201	10
202–249	8
> 250	5

Enpresa-taldean kasuetan, «enpresa bakarra» delakoa irizpideari jarraikiz, puntuazioak ez dira ematen espedienteko enpresen plantillekin erdietsitako batez bestekoen arabera, baizik eta plantillak gehitzen dira, eta horiei aplikatzen zaizkie puntuazioak.

2.– Deialdi honetan ez da lehentasunezko zat jotzen prestakuntza-ekintza generikoak eta zeharkakoak finantzatzea, salbu eta justifikatuta eta enpresaren jarduerarekin zuzenean lotuta dauden kasuetan.

3.– Aurkezturiko ekintzen lehentasunezko tratamendua baliatu ahal izateko, eta eskabide-inprimakietan biltzen den informazioa alde batera utzita, eskatzaileak egokitzen duten dokumentu osagarri guztiak aurkeztu behar ditu.

4.– Ekintzei lehentasuna emateko kontuan harturiko baldintzak funtsean aldatzen badira ekintza egikaritzen den bitartean, lehentasunezko izaera dela-eta lorturiko finantzaketa gehigarria berrikusi ahalko da.

II.– Kalitate- eta koherentzia-irizpideak: 65 puntu, gehienez.

1.– Aurkezturiko prestakuntza-ekintzen kalitatea eta koherentzia balioesteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Enpresaren prestakuntza-estrategia: 55 puntu, gehienez:

– Enpresak premiak aztertu eta detektatzeko azterlana egin izana, proposatutako prestakuntza-ekintzak deskribatzeko. 5 puntu.

– Ekintza horiek enpresaren proiektuari atxikitako prestakuntza-plan batean biltzea, zeina hauek eragina izan ahal izango baita: inbertsio estrategiko berriak; enpresa barruko inbertsioak; ekipamendu berriak; sistema berriak ezartzea; merkatu berriak zabaltzea; balioaniztasuna enpleguen, eta abar. 30 puntu.

– Enpresak hausnarketa-prozesua abian jarri izana, prestakuntza-ekintza horien lehentasuna erabakitzeke. 5 puntu.

– Lehen aipatutako azterlanean aurkeztutako ekintza bakoitzaren deskribapena eta kokapena: enpresarentzako kostua, hasitako eta/edo amaitutako ekintzak, interes ekonomiko eta sozialeko ekintzak. 15 puntu.

– Prestakuntza-ekintzen ebaluazioa. 5 puntu.

– Aurkeztutako ekintzen koherentzia orokorra: ekintzen iraupena eta parte-hartzaileen kopurua ekintzako. 10 puntu.

b) Eskatzaileak proiektuan duen inplikazioa: 10 puntu, gehienez:

– Proiektua egikaritzera bideratutako baliabideak eta langileen inplikazioa ekintzen diseinuan. 5 puntu.

– Eraginkortasuna hornitzaileak hautatu eta kudeatzean. 5 puntu.

2.– Atal honetan gutxienez 30 puntu lortzen ez dituzten eskabideek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

III.– Aurreko egikaritze- eta betetze-maila:

Balorazio teknikoan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagunduriko 2019ko eta 2020ko deialdietan eskatzaileak egiaztaturiko egikaritze- eta betetze-maila hartuko da kontuan. Gehienez 10 puntuz gehitu edo murriztu ahalko da balorazio teknikoa lorturiko guztizkoaren gain, eta ezingo da inoiz 100 puntutik gorakoa izan.

Egikaritze-maila:	Puntuazioa
% 100	10
% 90 edo handiagoa eta % 100 baino txikiagoa	5
% 85 edo handiagoa eta % 90 baino txikiagoa	0
% 80 edo handiagoa eta % 85 baino txikiagoa	-2
% 75 edo handiagoa eta % 80 baino txikiagoa	-4
% 70 edo handiagoa eta % 75 baino txikiagoa	-6
% 65 edo handiagoa eta % 70 baino txikiagoa	-8
% 0 edo handiagoa eta % 65 baino txikiagoa	-10

10. artikulua.– Modulu ekonomikoak.

1.– Aurrez aurreko prestakuntza-ekintzak.

a) Profesionaltasun-ziurtagiriei lotuta ez dauden prestakuntza ekintzetan, modulu ekonomiko hauek aplikatuta burutuko da balorazio ekonomikoa (euro/ordu/parte-hartzaile):

Kodea	Lanbide-arloa	Kanpo prestakuntza	Barne prestakuntza
ADK	Administrazioa eta kudeaketa	13	4,2
GKE	Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak	13	4,2
NEK	Nekazaritza	13	4,2
ARG	Arte grafikoak	13	4,2
ART	Arteak eta esku-langintzak	13	4,2
MER	Merkataritza eta marketina	13	4,2
ELE	Elektrizitatea eta elektronikak	13	4,2
ENU	Energia eta ura	13	4,2
EOZ	Eraikuntza eta obra zibila	13	4,2
POS	Kalitatea	9	4,2
POS	Erabiltzaile-mailako informatika	9	4,2
POS	Zuzendaritza	13	4,2
POS	Giza baliabideak	13	4,2
POS	Hizkuntzak	9	4,2
POS	Laneko segurtasuna eta osasuna	9	4,2
FME	Fabrikazio mekanikoa	13	4,2
OST	Ostalaritza eta turismoa	13	4,2
ERI	Erauzketa-industriak	13	4,2
IFK	Informatika eta komunikazioak	13	4,2
IMA	Instalazio eta mantentze-lanak	13	4,2
IRP	Irudi pertsonala	13	4,2
IRS	Irudia eta soinua	13	4,2
ELI	Elikagaien industriak	13	4,2
ZAK	Zura, altzariak eta kortxoak	13	4,2
ITA	Itsasoa eta arrantza	13	4,2
KIM	Kimika	13	4,2
OSA	Osasungintza	13	4,2
SEI	Segurtasuna eta ingurumena	13	4,2
GKZ	Gizarte- eta kultur-zerbitzuak eta komunitate-zerbitzuak	13	4,2
EJL	Ehungintza, jantzigintza, larrua	13	4,2
GIM	Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak	13	4,2
BEZ	Beira eta zeramika	13	4,2

Aurrez aurreko modalitatearen kanpo-prestakuntzari buruzko modulu ekonomikoak % 50 arte areagotu ahalko dira prestakuntza-ekintza jakin batzuen kasuan, baldin eta, haien espezialitatea eta ezaugarri teknikoak kontuan hartuta, finantzaketa handiagoa behar bada, betiere.

Aurreko paragrafoan jasotako ekintzen guztizko kostuak ezingo du gainditu deialdi hau finantza-terera zuzendutako funtsen guztizkoaren % 5.

b) Profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako prestakuntza-ekintzetan, modulu ekonomikoa 8 euro orduko eta parte-hartzailekoa izango da.

2.– Teleprestakuntzako prestakuntza-ekintzak.

Profesionaltasun-ziurtagiriei lotuta ez dauden prestakuntza-ekintzetan, modulua 7,5 eurokoa izango da parte-hartzaile bakoitzeko.

3.– Prestakuntza-ekintza mistoak.

Aurrez aurreko prestakuntza-denboraren ordu/parte-hartzaile kostua aurreko 1. apartatuan deskribaturikoaren arabera lortuko da. Teleprestakuntza-denboraren ordu/parte-hartzaile kostua aurreko 2. apartatuan deskribaturikoaren arabera lortuko da. Ekintzaren guztizko kostua bi kostu partzialen batura izango da.

11. artikulua.– Prozedura eta ebazpena.

1.– Prozedura izapidetzeko organo eskuduna Enplegurako Lanbide Heziketako zuzendaria izango da, eta ebazteko organo eskuduna, berriz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia.

2.– Eskabideak aurkeztuta, aurkeztutakoa baino informazio gehiago eskatu ahal izango da. Hamar egun balioduneko epea emango zaio eskatzaileari akatsa zuzentzeko edota aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak aurkezteko. Halaber, adieraziko zaio, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela. Administrazioa, bestalde, behartuta dago eskabidearen gainean ebazpen adierazi bat hartzera eta ebazpena jakinaraztera.

3.– Eskabideak aztertzeko eta haien balorazioa egiteko, batzorde teknikoa eratuko da. Hauek osatuko dute batzorde hori: Enplegurako Lanbide Heziketako zuzendariak, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuaren arduradunak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko hiru teknikaririk. Haren osaera Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren web-orrian eta EHAAn argitaratuko da.

Ebaluazio-batzordeak aurkeztutako eskabideak aztertuko ditu, ebazpen-proposamena prestatuko du, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari helaraziko dio, hori baita ebazpena emateko organo eskuduna.

4.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak dagokion ebazpena emango du, eta interesdunei jakinaraziko, Lanbideren web-orrian argitaratuta (www.lanbide.euskadi.eus).

Ebazpena aldekoa bada, diruz lagunduko diren prestakuntza-ekintzak, parte-hartzaile kopurua, ordu kopurua eta finantzaketa adieraziko dira. Eskatutako laguntza ukatzen bada, horren arrazoia adieraziko da.

Interesdunak 10 eguneko epea izango du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpena jakinarazten denetik aurrera, emandako dirulaguntza onartzen duela adierazteko eta lehen prestakuntza-ekintza hasi izanaren ziurtagiria bidaltzeko, baldin eta ekintza hori ebazpena jakinarazi baino lehen hasi bada. Epe hori igarotakoan, eskabidean atzera egin duela ulertuko da.

5.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

6.– Ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez 6 hilabetekoa izango da, deialdia EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta, epe hori amaituta jakinarazpenik jaso ez bada, eskabidea ezetsi dela ulertuko da.

7.– Erakunde onuradunei dirulaguntzak emateko eta ordaintzeko, ezinbestekoa da amaituta egotea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren edo haren erakunde autonomoen antzeko dirulaguntzen edo laguntzen kariatara bideratzen hasitako itzulera- edo zehapen-prozedurak.

8.– Publikotasunaren printzipioa betetzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da zer erakundek jaso duten dirulaguntzaren bat deialdi honen babesean.

12. artikulua.– Prestakuntza-plana egikaritzea.

1.– Eskatu eta eman den xede jakinerako erabiliko da dirulaguntza, hots, prestakuntza-planak egikaritzeko.

2.– Deialdi honen bidez finantzatutako prestakuntza-planetan bilduta dauden prestakuntza-ekin-tzak erabat doakoak izango dira parte-hartzaileentzat.

3.– Ekintza edo talde bakoitza hasi baino bi egun lehenago, erakunde onuradunak datu hauek jakinarazi beharko ditu: ekintza non emango den, entitate emailea, eta ekintza gauzatzeko eguna eta ordutegia.

Bigarren prestakuntza-egunean beranduenez, parte-hartzaileei buruzko datuak jakinarazi beharko dizkio erakunde onuradunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

Ikastaldia amaitu eta gehienez 30 eguneko epean, amaitu duten parte-hartzaileak zein diren jakinarazi beharko du, erakunde onuradunak eta ikastaldiari buruzko informazioa itxi beharko du.

Betebehar horiek betetzeko, titularren esku aplikazio bat jarriko du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere web-orrian. Horrela adierazitako informazioak ez du aldaketarik onartuko taldea edo ekintza amaitzen denetik hasi eta 30 egun igaro ondoren, eta horixe izango da prestakuntza-plana egikaritu dela justifikatzeko kontuan hartuko den bakarra.

Jakinarazpen-betebehar horiek ez badira betetzen, prestakuntza-ekintza egin gabetzat hartuko da, plana egikaritu izana justifikatzearen ondorioetarako.

4.– Titularrek aurrez aurreko ekintzetan eguneroko bertaratze-partea egin beharko dute, eta irakasleak eta parte-hartzaileak sinatu beharko dute.

Teleprestakuntzako prestakuntza-ekintzen kasuan, berriz, titularrak prestatu beharko du parte-hartzaile bakoitzaren gainean egindako jarraipen-kontrolari buruzko dokumentazioa.

Titularrak bermatu beharko du parte-hartzaileak prestakuntza-ekintzetara egunero bertaratu direla egiaztatzeko dokumentuen zaintza.

5.– Erakunde onuradunak egiaztapen-diploma bat eman beharko dio aldeko ebaluazioarekin prestakuntza gainditu duen parte-hartzaile bakoitzari, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako ereduaren arabera, eta, hor, hauek agertuko dira gutxienez: prestakuntza-ekintzaren izena, prestakuntzaren edukiak, emateko modalitatea, iraupena eta emate-aldia. Halaber, prestakuntza aldeko ebaluaziorik gabe amaitu duen parte-hartzaileei, kurtsoan bertaratze-ziurtagiri bat emango zaie.

Kualifikazioen Sistema Nazionalaren Katalogo Modularrari loturiko prestakuntza-ekintzetan, eta prestakuntza-ekintza gainditu duten pertsonen dagokienez, parte-hartzaileei emango zaien ziurtagiria, eska daitekeena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako prozeduraren arabera emango da.

Prestakuntzaren erakunde arduradunak bertaratze-ziurtagiria edo, hala dagokionean, diploma, eman edo bidali beharko die parte-hartzaileei, edo prestakuntza-plataformetan eskuragarri jarri, gauzatutako prestakuntza-ekintza amaitu eta gehienez bi hileko epean.

Titularrak diploma edo bertaratze-ziurtagiri horren kopia gordeko du, parte-hartzailearen «jaso izanarekin» batera.

6.– Artikulu honen 3. apartatuan adierazten den moduan, ekimen honen bitartez programatzen diren prestakuntza-ekintzen hasieraren eta amaieraren berri eman beharko du enpresak, eta prestakuntza ekintzak eta haien jarraipena, kontrola eta ebaluazioa modu egokian garatzen direla ziurtatu beharko du, baita ematen den prestakuntza enpresaren eta langileen beharrezko ondoko egokitzen zaiela ere.

Nolanahi ere, erakunde onuradunak bere gain hartuko du zuzenean laguntzak behar bezala aplikatzea, eta jarraipen- eta kontrol-organismoen eginkizunen behar bezalako garapena ziurtatu beharko du.

7.– Emate-ebazpena jaso eta gero, prestakuntza-planaren % 50 gauzatuta eta behar besteko aurrerapenez, laguntzaren erakunde onuradunak eskatu ahal izango du finantzatutako planean prestakuntza-ekintza berriak sartzeari, zeinek ez baitute inola ere gaindituko finantzatutako planean onartuetatik % 15, eta, betiere, ez badakarte minoraziorik hasierako eskabidean aintzat hartu izan balira lortuko zatekeen balorazio teknikoarekiko. Plana aldatzeko eskabide hori idatziz egingo da, eta behar bezala arrazoitu beharko da.

8.– Kalitatea ebaluatzeko galdetegiak banatu beharko du titularrak prestakuntza-ekintzak amaitzen dituzten parte-hartzaile guztien artean, eta, ondotik, jasotako galdetegiak bildu eta zainduko ditu.

Ikasleek betetako galdetegietatik lortutako batez besteko emaitza sartu beharko du erakunde onuradunak bertaratzeen jarraipen-aplikazioan, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren 2009ko apirilaren 27ko Ebazpenean xedatutakoaren arabera, zeinaren bidez argitaratzen baitira enplegurako prestakuntza-ekintzen kalitatea ebaluatzeko galdetegiak (2009ko ekainaren 11ko BOE).

Erakunde onuradunaren erantzukizuna da kalitate-galdetegia betetzen dela ziurtatzea. Partaideek inkesta betetzen ez badute, prestakuntza-ekintzaren likidazioa murriztuko da, 15. artikuluan adierazitako moduan.

13. artikulua.– Laguntzen ordainketa.

1.– Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da, honela:

a) Lehen ordainketa, dirulaguntzaren guztizkoaren % 50, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak lehen prestakuntza-ekintza hasi izanaren ziurtagiria jasotzen duen unean, zeina hasi eta 5 egun balioduneko epean aurkeztu beharko baita.

b) Bigarren ordainketa, dirulaguntzaren gainerakoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan justifikazio-memoria aurkeztu, eta dagokion azken likidazioa onartzen denean.

2.– Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izan ditzan, erakunde eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan inskribatuta behar du.

Alta eman edo hirugarren interesduneko zure datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak emandako hirugarrengozako erregistro telematikora jo beharko da, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritzak/-/hirugarrenaren-datu-aldaketa/>

14. artikulua.– Kostu finantzarriak eta egozpen-irizpideak.

Honako hauek hartzen dira zuzeneko kostutzat, prestakuntza-ekintza bakoitzeko bananduta:

a) Enpresatik kanpoko zerbitzuak kontratatzeari dagozkion kostuak.

b) Prestatzaileen edo barne-prestatzaileen kostua.

c) Material suntsigarriaren kostua, babesteko eta segurtasuneko materiala barne.

«Teleprestakuntzaren» kasuan prestatzaileen eta parte-hartzaileen artean erabilitako komunikabideei egotz dakiekeen kostuak dira finantzarriak, ekintzaren guztizko kostuaren % 10 gehienez.

d) Material didaktikoen kostua.

e) Prestakuntza-fasean dauden langileen aseguruak. Gastu horiek prestakuntza-ekintzen araberak behar bezala xehatuta aurkeztu beharko dira eta egoztearen parte-hartzaileen kopurua kontuan hartuta egingo da.

f) Amortizazioak, prestakuntza-ekintza bakoitzari egotzi beharreko proportzioan, eta instalazio eta ekipamenduen alokairuak, prestakuntza-ekintzen garapenari egotzi beharrekoak.

Halaber, zeharkako kostuak ezin izango dira egindako eta justifikatutako prestakuntza-jardueraren guztizko kostuaren % 10 baino handiagoak izan.

Bestalde, enpresek programatutako prestakuntzaren antolaketaren kostuak finantzatu ahal izango dira, baldin eta kanpoko entitate baten esku uzten badute antolaketa hori. Kostu horiek ezingo dute gainditu prestakuntza-jardueraren kostuen % 10.

Kostu hori behin bakarrik egotziko zaizkio finantzatutako proiektu orokorrari.

Industria-inbertsio ezohiko edota estrategikoetatik eratorritako prestakuntza-ekintzetan, eta betiere langileen kualifikazioa badakarte teknologietan edo produkzio-prozesu berritzaileetan, EAEtik kanpora egin behar badira EAEk arlo horretan duen prestakuntza-eskaintzaren frogaturiko gabeziaren ondorioz, langile horiek bidaiak edota egonaldiak sorturiko zeharkako kostuak ere kontuan hartu ahalko dira.

15. artikulua.– Dirulaguntzen justifikazioa eta likidazioa.

1.– Onuradunek diruz lagundutako prestakuntza-plana osatzen duten prestakuntza-ekintzak egikaritzean sortutako kostuak justifikatu beharko dituzte. Horretarako, deialdi honetan jasotako kostu finantzarriak eta egozte-irizpideak hartuko dira aintzat. Fakturen edo zuzenbidean baliozkoak diren frogadokumentuen bidez justifikatuko dira kostuak. Dokumentu horiek nahikoa xehetasunez banandu beharko dituzte azalpenak, funtsak behar bezala aplikatzen direla egiaztatzeko eta prestakuntza-ekintza bakoitzari egotzitako kostu finantzarri guztiak identifikatzeko.

2.– Laguntzen likidazioa modu proportzionalean egingo da, amaitu dituzten parte-hartzaileen kopurua eta egindako ikastorduen kopurua aintzat hartuta, prestakuntza-ekintza bakoitzerako ezarritako eta onartutako modulu ekonomikoen arabera.

Prestakuntza gauzatu ondoren, dirulaguntza zehaztu ahal izateko, aurrez aurreko ekintzetan pertsona batek prestakuntza amaitu duela ulertuko da, baldin eta prestakuntza-ekintzaren iraupenaren % 75ean bertaratu bada. Halaber, teleprestakuntzako modalitatean emandako prestakuntza-ekintzetan, pertsona batek prestakuntza amaitu duela ulertuko da baldin eta ikaskuntzaren jarraipena egiteko aldizkako kontrolen % 75 egin baditu eta teleprestakuntzari buruzko gainerako eskakizunak bete baditu, deialdi honen 3.3.B artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– Azken likidazioa egiteko, onuradunak euskarri elektronikoan hauek bete beharko ditu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren web-orrietan eskuragai dauden eredu normalizatuetan, 2023ko irailaren 15erako beranduenez:

a) Egindako prestakuntza-ekintza bakoitza amaitu (egikaritu) izanaren ziurtagiria, eta bere garaian, hasiko zela jakinarazitako ekintzari buruzkoa.

b) Deialdi honetan ezarritako kostu finantzarrien eta egozte-irizpideen arabera, diruz lagundutako prestakuntza-ekintzei buruzko kostuak gutxienez ziurtatuko dituzten dokumentuak.

c) Deialdi honetan aurkeztu gabeko ekintzak direla-eta estatuko sisteman egindako hobarien ardurapeko aitortpena, EAEko lantokietara atxikitako langileei dagozkien ekintzak betiere.

Prestakuntza Planaren likidazioa egitean, eta diruz lagunduriko proiektuari esleai dakioken behin betiko zenbatekoa kalkulatzeko aldera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kontuan hartuko du EAEko langileei dagokien 2022. urteko estatuko eredian enpresa bakoitzerako ezarritako hobari gisa emateko gehieneko kopurua, eta enpresari etengabeko prestakuntzako azalpenagatik 2022ko ekitaldi honetan eta langile horientzat hobari gisa benetan eman zaion diru-kopurua, eta plan bakoitzari dagokion azken dirulaguntzatik deskontatuko da estatuko sisteman kontsumitu gabeko kreditu-kopurua.

d) Hornitzaileen aukeraketak ekonomia- eta eraginkortasun-irizpideei erantzun diela egiaztatzen duten dokumentuak, baita gutxienez hiru eskaintza eskatzeko betebeharra bete izana egiaztatzen duena ere, kontratuen zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitako kontratu txikien zenbatekoa gainditzen duenean.

4.– Era berean, profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako prestakuntza-ekintzak aurrez aurreko modalitatean egiten dituzten erakundeek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eman beharko diote emandako prestakuntzaren ebaluazioari buruzko dokumentazio guztia (ikasleek lortutako emaitzak, ebaluazio-txostenak eta -aktak eta abar biltzen dituen dokumentazioa), profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituen araudian eskatutakoa, prestakuntza-ekintza amaitu eta 15 eguneko epean, eta, nolahi ere, 3. apartatuan aurreikusitako epea amaitu baino lehen.

5.– Aurkeztutako egikaritze-ziurtagirietan behar bezala betetako informazioa duten eta deialdi honen 12.3 artikuluan aipatzen den parte-hartzaileen zerrendan dauden parte-hartzaileak bakarrik hartuko dira kontuan.

Likidazioaren ondorioetarako, ez dira aintzat hartuko ekintza benetan amaitu duten parte-hartzaileak, hau da, ekintzaren iraupenaren gutxienez % 75era bertaratu direnen eta 12.8 artikuluan adierazitako kalitatea ebaluatzeko galdetegia bete ez dutenen zenbatekoa.

6.– Aurkeztutako dokumentuak aztertu ondoren emango da dirulaguntzaren azken likidazioko ebazpena.

Egindako likidazioa aurreratutako kopurua baino txikiagoa bada, dagokion itzulketa-espeditientea izapidetuko da, bat etorri deialdi honen 18. artikuluan xedatutakoarekin.

7.– Emandako laguntzaren ondorioetarako egin diren ordainketen ordainagiri originalak aurkeztu beharko ditu onuradunak, edo, horiek ezean, fotokopia konpultsatuak aurkeztuko ditu behin betiko likidazioa jakinarazi eta hurrengo 20 egunetan.

8.– Dirulaguntzaren onuradunek 4 urteko epean gorde beharko dituzte, dirulaguntzaren amaierako likidaziotik aurrera, bai dirulaguntzaren oinarri den jarduera gauzatu dela egiaztatzen duten dokumentuak, bai eta jasotako funtsen erabilerari buruzko ziurtagiriak ere.

Dirulaguntzaren onuraduna epe hori amaitu baino lehen desagertzen bada, aipatu agirien kopia bidali beharko du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura, desagertu baino lehen.

16. artikulua.– Laguntza-eskubidea eskuratzeko eta eskubide horri eusteko eskakizunak.

Laguntza-eskubidea erdietsi eta gordetzeko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan aurreikusitako betebeharrak bete beharko dituzte onuradunek, baita hauek ere:

– Hala eskatuta, aurreko deialdietan jasotako kopurua itzuli izana.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea enpresa eskatzailea edo enpresa parte-har-tzaileak legez, hitzarmenez edo bestelako xedapenez behartuta ote dauden diru-baliabideak eskaintzera prestakuntza egiteko. Kasu horretan, laguntzak ez du esan nahiko horretarako eskainiko diren diru-baliabideak murriztu behar direnik.

– Laguntza jaso duen prestakuntza-jarduera deialdi honetako eta EAEko Etengabeko Prestakuntzako Lanbide arteko Akordio oinarri, baldintza eta betekizun formal eta materialen arabera egitea. Kontzeptu horregatik esleitutako funtsak ezin izango dira berau ematera bultzatu duten helburuetarako ez diren gauzetan erabili.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean egiaztatzea jarduera egin dela eta laguntza ematea edo gozatzea zehaztuko duten eskakizunak eta baldintzak bete direla. Horretarako, dagokion justifikazio-elementuak, prestakuntza-ekintzari buruz eskatuko zaizkien datuak eta agiriak aurkeztuko dituzte prestakuntza-ekintza horiek amaitu ondoren; horrela, behar bezala egiaztatu ahal izango da ekintza egin dela, emandako finantzaketa erabili dela, eta lortutako emaitzen ebaluazioa egin dela.

– Argitalpenetan edo onarturiko ekimenaren bestelako komunikabide eta hedabideetan, baita material didaktiko guztietan eta sortutako beste motakoetan ere, jasotzea prestakuntzako ekintza estrategikoei laguntzeko 2022ko deialdian eginiko ekintzak direla eta Lanbide finantzatuak/kofinantzatuak direla, eta, horietan, Eusko Jaurlaritzaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren logotipoak barne hartuko dira, betiere.

– Hamazazpigarren oinarrian ezarritako kontrol- eta jarraipen-jarduketak onartzea.

– Haren kontabilitatearen kontu bereizian edo berariazko epigrafean prestakuntza-ekintzak egikaritzeko gastu guztiak identifikatzea, baita «enplegurako lanbide-heziketa» izena edo epigrafearekin aplikatzen diren hobariak ere.

– Enpresak eraldatzen, bat egiten edo zatitzen direnean, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

– Enpresak behar diren bitartekoak jarri beharko ditu 12.8 artikuluan adierazitako inkesta betetzen laguntzeko, eta inkesta benetan betetzeko ardura izango du.

17. artikulua.– Jarraipena eta kontrola.

1.– Laguntzen onuradunek onartuko dituzte Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Lan eta Enplegu Sailak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Europako erakunde eskudunek gauzatzen dituzten egiaztapen- eta kontrol-jardunak. Horretarako, baimena emango dute, batetik, lokaletan eta instalazioetan sartzeko, eta bestetik, parte-hartzaileekin, Langileen Lege Ordezkaritzako kideekin eta elkarrizketatzea beharrezko ikusten den gainerako pertsonekin harremanetan jartzeko.

2.– Kontrol-jarduketak onartzeko betebeharrak orokor honen esparruan, onuradunak honako hau bete beharko du:

– Ekimen finantzatua egikaritu izanari edo haren bideragarritasunari buruzko informazio oro ematea, baita jarraipena egiteko eskatzen zaizkion dokumentuak betetzea eta igortzea ere; dena dela, 10 eguneko epea izango du egiten diren errekerimenduei erantzuteko. Errekerimendu horiek estatuko ereduaren barruan hobaria jaso duten ekintzei buruzkoak ere izan daitezke.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea beste erakunde batzuetatik dirulaguntzak edo laguntzak eskatu edo lortu izana, deialdi honetan diruz lagundutako ekintza guztiei edo batzuei eragiten dietenak.

3.– Auditorien eta Ikuskaritzen Urteko Plan bat ezarriko da, deialdian ezarritako eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko eta diruz lagundutako ekintzak benetan zer baldintzatan egikaritu diren aztertzeko. Plan horren baren sartuko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egingo den arriskuen analisiaren ondoriozko estatistika-irizpideen arabera aukeratzen dituen espedienteak. Ikuskaritze Planean bilduko dira, halaber, behar bezala identifikatutako pertsonen egindako eta sinatutako salaketetatik eratorritako jarduketak.

18. artikulua.– Dirulaguntzak itzultzea.

1.– Jasotako laguntzak osorik edo partez itzuliko dira, eta laguntza ordaintzen den unetikako berandutze-interesak ordainduko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia) 53. artikuluan adierazitako kasuetan, eta bereziki kasu hauetan:

– Ez betetzea laguntzaren helburua edo laguntza emateko jarritako baldintzak.

– Ez betetzea jarduera egin izana eta laguntza ematea edo baliatzea baldintzatzen duten baldintzak eta eskakizunak bete izana justifikatzeko betebeharra.

– Dirulaguntza lortzea horretarako eskatutako baldintzak bete gabe.

– Jarraipen- eta kontrol-jarduketak ukatzea edo oztopatzea.

– Diruz lagundutako ekintzak egikaritzeko baldintzei buruzko datu faltsuak ematea, errealitatearekin bat ez datozenak.

– Ez betetzea deialdi honetan zehaztutako betebeharrak, baldintza edo eskakizunak.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko idazkari nagusiak emango dio hasiera itzultzeko prozedurari, eta laguntzaren onuradunari jakinaraziko zaio, ez-betetzea eragin duen edo duten gertaeraren edo gertaeren berri emanez. Horrekin batera, jakinaraziko zaio hamabost eguneko epea duela alegazioak edo egokitzen jotzen dituen egiaztatutako aurkezteko; hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzudan ematen diren Berme eta itzulketen erregimena arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera.

3.– Alegazioak aurkezteko epean alegaziorik aurkeztu ez bada edo alegazioak ezetsi badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharreko zenbatekoak itzultzeko betebeharra adieraziko du. Ebazpen horretan adieraziko da horretarako epea. Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez 12 hilabeteko epean ebatzi beharko da.

4.– Borondatezko epea amaitutakoan itzulketa gauzatu ez badu, beharrezko izapideak jarriko dira abian, itzuli beharreko diru-zenbatekoak premiamendu-bidetik berreskuratzeko. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko dira.

19. artikulua.– Datuen babesari buruzko informazioa.

Datu pertsonalen babesaren arloan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bi xedapen hauen arabera jokatu du: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB 2016/679 Erregelamendua) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa. Lortzen diren datu pertsonalak «Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueraren barruan egongo dira. Jarduera horren erantzulea Lanbide da, eta haren helburua Lanbideren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin zerikusia duten dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea, bai eta iruzurra jazartzea eta datuak estatistiketan erabiltzea ere. Lortzen diren datuak beharrezkoak dira Lanbideri emandako botere publikoak gauzatzeko eta lege-betebeharrak betetzeko, eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek eskubidea dute beren datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta tratamenduaren aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).

Datuen babesari buruzko informazio osagarri eta zehatza kontsultatzeko: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-capa2-eu.shtml>

20. artikulua.– Lehiari buruzko EBko araudia.

1.– Deialdi honetan zehaztutako laguntzek bat etorri beharko dute minimis laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamendu Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruz Batzordeak 2013ko abenduaren 18an egindako 1407/2013 (EE) Erregelamenduari (DOUE L352, 2013-12-24). Kalifikazio horren ondorioz, enpresa bakar bati emandako minimis laguntzen gutzizko zenbatekoa ez da 200.000 eurotik gorakoa izango hiru zerga-ekitalditan.

Muga hori aplikatzeko, kontuan hartu beharko da nola definitzen den «enpresa bakarra» erregelamendu horren 2.2 artikuluan.

2.– Dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bietan jasotako minimis laguntza horiei buruzko aitortpena egin beharko du laguntza eskatzen duenak, honako hau frogatzeko: minimis laguntza berriarekin ez dela gainditzen aipatutako erregelamenduan ezarritako gehieneko muga.

3.– Informazio hori egiaztatzeko, erakundearen legezko ordezkariak erantzukizunpeko adierazpen bat egingo du (erantzukizunpeko adierazpena eskabide-orrian jasota dago). Edonola ere, erakunde eskatzaileak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren esku eduki beharko ditu adierazpen horretan bildutako datuak egiazkoak direla frogatzen duten dokumentuak.

21. artikulua.– Dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko arauak.

Laguntzen programa honi dirulaguntzen arloko arau hauetan bildutako oinarrizko araubide juridikoa aplikatu behar zaio: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua). Era berean, arau hauetan xedatutakoa ere aplikatuko da: EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategina–, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, zeinaren bidez ezarri baitziren Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautu zen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak.

22. artikulua.– Deialdi honetako ehunekoen kalkulua.

Deialdi honetako kalkuluen ondoriozko ehunekoren batean hamartarrik egonez gero, zati osoa baino ez da hartuko kontuan, hamartarrak alde batera utzita.